



OROZKOKO UDALA

ESTOLDERIA ETA SANEAMENDU ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA

(1984/09/20ko BAOn argitaratua eta 2008/12/19ko 244 zb. BAOn eta 2019/12/17ko 240
zb. BAOn aldatua)

I. OINARRIA ETA XEDEA.

1. ARTIKULUA-

Ordainarazpena honako honegatik izango da:

- a) Udal mugartearen barruan dauden finken onerako hondakin-urak, ur beltzak eta iraitziak isurtzeko udal estolderia erabiltzea.
- b) Norbanakoen estoldak ikuskatzeko zerbitzua ematea.
- c) Hobi septikoen eta putzu beltzen garbiketa zerbitzua eta lursailen saneamenduarekin zerikusia duen beste lan berezi batzuk egiteko zerbitzua erabiltzea.

2. ARTIKULUA-

Zergapeko egitatea aurreko artikuluan zehaztutako edozein zerbitzu ematearen ondorioz zehazten da. Zerga, zerbitzua ematen den unetik ordaindu beharko da. Estolderia zerbitzuari dagokionez suposatzen da estolderia sarera hartuneak izateak, bai zuzenean bai jabego partikularrean kokatutako adarren bidez, berarekin dakarrela zerbitzua ematea.

II. ZERGA ORDAINTZEKO BETEBEHARRA.

3. ARTIKULUA-

Ordaintzeko betebeharra dute:

- a) Estolderia zerbitzuari dagokionez, aipatutako zerbitzuen onuradunak izanik udal mugartean finkek dituztenek edo finken jabeek.
- b) Norbanakoen estoldak ikuskatzeko zerbitzuari eta hobi septikoen edo putzu ubeltzen garbiketa zerbitzuari dagokionez: aipatutako zerbitzuak eskatzen dituztenek.
- c) Lursailen saneamenduarekin zerikusia duen beste lan berezi batzuei dagokienez: zerbitzua eskatzen dutenek. Hala ere, zerbitzuaren onura jasotzen duten higiezinak jabeek eskatzaileen ordezkotzat izango dute.

III. TARIFAK.

4. ARTIKULUA-

Honako tarifa hauek ezarriko dira:

- **Lehenengo tarifa:** Estolderia zerbitzuak:

- * Sare orokorreko edo putzu beltza daukaten auzoak: ur-horniketaren fakturaren %95a



OROZKOKO UDALA

- * Udal ur hornidurarik ez daukien auzoak: 20,00 €/hiruhileko.
- **Bigarren tarifa:** Hobi septikoen eta putzu beltzen garbiketa-zerbitzuak, estolda ikuskatzeko zerbitzuak eta finken saneamendurako beste lan berezi batzuk. Zerbitzuaren kostu materialaren zenbatekoa. Kasu bakoitzean kitapena egingo da ikuskatzeagatik, zaintzeagatik eta gastu orokorren aurrerapenengatik soldaten, ordainsarien, garraioen eta desplazamenduen gainean %15eko gehigarria ezarriz, eta beste %5 bat obren zuzendaritzagatik

IV.KUOTAK.

5. ARTIKULUA-

Ordainarazpen honengatik eskatuko diren kuotak honako izaera hau izango dute:

- a) Hiruhileko izaera, eta zaborren zein uren kitapen-kuotekin batera bilduko dira.
- b) Bigarren tarifyan norbanako izaera, eta emandako egintza edo zerbitzu bakoitzarengatik bilduko da.

V. KUDEAKETA-ARAUAK.

6. ARTIKULUA-

a) Ordainarazpen honen mende dauden higiezinaren jabeek udal bulegoetan dagokion alta aitortpena aurkeztuko dute.

b) Aitortutako zerbitzuetan aldaketarik edo bajarik izanez gero ere aitortpena aurkeztu beharko dute. Honetarako gertaera izaten denetik ondorengo hilabete naturalaren azken egunera arteko epea izango dute. Aipatutako obligazioa betetzen ez dutenek ordainarazpenaren mende izaten jarraituko dute. Aitorpen horiek egiten diren sei hilabetearen hurrengoan hasita izango dute eragina.

c) 1. artikuluko 3. Paragrafoan azaltzen diren zerbitzuetako bat jasotzeko interesa duenak aitortutako zerbitzuaren izaera eta tamaina zehazten duen eskaera aurkeztuko du udalean.

7. ARTIKULUA-

2. artikuluan aurreikusitako eraren baten estolderia orokorrarekin hartuneren bat duten finka eraiki berrietan, jabeek edo euren ordezkari legalek Udal Administrazioan dagokion alta-deklarazioa aurkeztuko dute. Horretarako 15 eguneko epea izango dute, betiere saneamendu sarea erabiltzen hasi zeneko biharamunetik zenbatzen hasita. Adierazpen honetan zerbitzua erabiltzen hasi zeneko data zehaztuko da, berau izango baita tasa eta higiezinak sortzen duen edo sor dezakeen errenta kobratzeko abiapuntua. Tasa kobratzeko hasierako data inoiz ere ezin izango da izan bizigarritasun baimena edo dagokion eraikinaren erabilera baimena eman ostekoa. Beraz, higiezina bere osotasunean edo zati baten hutsik badago ere, zerbitzua baimena eman ostean erabiltzen hasten dela ulertzen denez, aitortzeko eta zerga ordaintzeko betebeharra sortzen da.

VI. SALBUESPEN ETA HOBARIAK.



OROZKOKO UDALA

8. ARTIKULUA-

Estolderia eskubideak eta tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) Estatuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzako higiezinak.
- b) Eleiza Katolikoaren jabetzako higiezinak, Espainiar Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko Konkordatuan ezarritako baldintzetan.
- c) Erabilera eta zerbitzu publikora zuzendutako Udal txit gorenaren jabetzako higiezinak.
- d) Legezko xedapen bidez salbuespena aitortua duten higiezinak.

9. ARTIKULUA-

Hobariei eta murrizpenei dagokienez, legezko xedapenetan onartutakoak ezarriko dira.

VII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZERGA-ZIGORRAK.

10. ARTIKULUA-

Ezkutaketak, iruzurrak eta zigorrak Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritakoaren arabera zuzenduko dira.